

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Pitldowneko gizaki gezurtia

INGALATERRA, 1973. Mike Olfield musikari britainiarrak *Pitldown Man* izeneko zatia konposatu zuen *Tubular Bells II* lanaren barruan. Piezak distortsioa zuen oinarri; hamarkada batzuk lehenago Pitldowneko gizakiak horixe sortu zuen giza-eboluzioaren historian, distortsioa.

1912an, Sussexeko Pitldown herrian, harrobi bateko langileak hezur arrastoak aurkitu zituen: garezur zati bat, matrailezurra eta hortz solte bat. Arrastoak Charles Dawson arkeologo amateurri eman zizkioten eta honek, berehala, Londresko Geologia Elkartearen aurkeztu zituen Smith Woodward British Museum-eko paleontologo ezagunaren babesarekin. *Eoanthropus dawsonii* izena ipini zioten espezie berriari. Berehala hasi zen hezurren jatorriari buruzko eztabaida, hainbat hamarkada luzatuko zena. Pentsak arrastoak giza-eboluzioaren katea osatzeko falta zen elementua zirela zabaldu zuen. Komunitate zientifikoak ez zuen ikerketa sakonegirik behar izan teoria hura onartzeko; halakoxe arbaso

Aurkikuntzaren omenez egindako koadroan arrastoak eta adituak ikus daitezke. Eskuinean, zutik, Dawson eta Woodward (bizarrarekin).



baten bila zebiltzan, garun handiko eta primate itxurako izaki baten bila. Gaur jakina da eboluzioak ez zuela bide hori jarraitu.

Eta orduan ere, gero eta zalantza gehiago sortzen hasi zen arrastoen adina eta jatorriaren inguruan. Azkenean, 1953an A. T. Marston odontologoak bere azterketaren emaitzak eman zituen aditzera: matrailezurra eta hortzak orangutan batenak ziren, hortz soltea tximino batena eta garezurra *Homo Sapiens* batena, hots, gutako batena. Baina 50 urtetik gora joan dira gezurra agerian utzi zutenetik eta ia mende oso bat "aurkikuntza" ezaguna gertatu zela, eta oraindik ez dakigu nork eta zergatik burutu zuen iruzurra. Dawson da susmagarri nagusia, baina 1916an septizemiak jota hil zen eta ez zuen inoiz akusazioei erantzuteko aukerarik izan. Gainera, Pitldowneko herritarrak ez dabilta errudunaren bila; gezurrezkoa izanda ere, gizaki hark euren herria ezagun egin zuen eta egun bisita daitekeen monumentua berdin-berdin merezi zuela pentsatu zuten. ■



Garezur hau Pitldownen aurkitu zuten 1912. urtean. 40 urte beranduago jakin zuten garezurra gizaki garaikide batena zela eta matrailezurra orangutan batena.

ARRASTOAK

FILM HISTORIKOA da *The Good German*, asteotan Euskal Herriko zinema aretoetan ikus daitekeena. Film historikoa, zentzu zabalean. Batetik, Joseph Kanonen eleberrian oinarritutako pelikula II. Mundu Gerraren amaierako Berlin suntsituan dago kokatua. Jake Geismar (George Clooney) gerra-korrespontsal estatubatuarra Lena Brandt-ekin (Cate Blanchett), amerikarrek eta errusiarrek atzeman nahi duten espioia-rien emaztearekin, egingo du topo.

Baina bereziki teknikari dagokionean da historiko Steven Soderbergh-en lana. 40ko hamarkadako teknologia eta tresnak erabili ditu filma errodatzeko: zuri-bel-tzean errodatu du, lente finkoak erabili ditu –zoomik gabeak–, soinu teknika ere garai hartan zegoena da eta grafiko konputerizatu bakar bat ere ez du behar izan lana osatzeko. *Rolling Stone* aldizkari-ko kritikari Peter Traversen esanetan, "Filma baino, esperimentua da".



George Clooney eta Cate Blanchett protagonistak filmaren afixan. Afixak ere 40ko hamarkadako estetika du.